

5. artikulua.- Aukeratzeko jardunbidea

Zergadunek Foru Dekretu honen 3. artikuluan xedatutako aukeraren edo 4. artikuluan ezarritako atzera botatzearen berri eman behar-ko diote Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, idazki baten bidez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo gutxiagoko xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

Foru Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoko ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko uztailaren 16an.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

4.783

44/2002 FORU DEKRETUA, uztailaren 16ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bitartez, maiatzaren 20ko 51/97 Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretu bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 21, 22, 24 eta 43. artikulua eta XII. kapitulua aldatzen dira, eta 25 eta 28. artikulua indargabetzen dira.

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudiak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren alderdi batzuk garatzen ditu.

Maiatzaren 26ko 5/2002 Foru Arauak, hainbat zerga xedapen aldatzen dituenak, hainbat aldaketa egin ditu Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauan. Horiek direla kausa, Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren alderdi batzuk aldatu beharra dago, aparteko mozkinen berrinbertsioaren tratamendu berriaren eta talde fiskalen izen berriaren (lehen sozietate talde deitzen zitzaien) aldetik.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai horri buruz emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa ikusi ditugu.

Beraz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta gero,

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 21, 22 eta 24. artikulua aldatzea.

Bat. Maiatzaren 20ko 51/97 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 21. artikulua aldatu da, eta honela geratu da:

"21. artikulua.- Aparteko mozkinak berriz inbertitzea

Zergaren Foru Arauko 22. artikuluan xedatutakoa aplikatzea egoki denean, kontuan izango dira honako arauak:

1. Inbertsio funtsetako partaidetzaren ordezkari diren balioak edota sozietate kapitalaren gaineko partaidetza ematen ez dutenak ez dira hartuko mota guztietako erakundeen kapitalaren partaidetzaren edota funts propioen ordezkarietatik.

2. Mota guztietako erakundeetako partaidetzaren edo funts propioen ordezkari diren balioen edukitzaren denbora kalkulatzearren, balio eskualdatuak zaharrenak direla joko da.

3. Ondare elementuen edo balioen gaineko horniduren zenbatekoa ez da zerga oinarrian ez integratzeko errenten zati izango, haien hornidurak zergen aldetik kengarriak izan badira; ez eta, haien gozatu zuten ondare elementuak eskualdatzearen ondorioz, zerga oinarri horretan integratu beharreko amortizazioaren askatasunari edo azelerazioari aplikatutako zenbatekoak ere.

4. Berriz inbertitutako zenbatekoa eskualdatzean lortutako zenbatekoa baino handiagoa bada, hala badagokio, diferentzia Zergaren

Artículo 5.- Procedimiento para optar

Los contribuyentes deberán comunicar, mediante escrito dirigido al Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, la opción establecida en el artículo 3 o la revocación a que se refiere el artículo 4 del presente Decreto Foral.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y producirá efectos a partir del 1 de enero de 2002.

Vitoria-Gasteiz, 16 de julio de 2002.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

4.783

DECRETO FORAL 44/2002, del Consejo de Diputados de 16 de julio, que modifica los artículos 21, 22, 24, 43 y el título del Capítulo XII, y deroga los artículos 25 y 28, todos ellos del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral del Consejo de Diputados 51/97, de 20 de mayo.

El Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, desarrolló ciertos aspectos de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

La Norma Foral 5/2002, de 26 de mayo, de modificación de diversas disposiciones tributarias, introduce una serie de modificaciones en la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, que obligan a la modificación de ciertos aspectos del Reglamento del Impuesto en lo que se refieren al nuevo tratamiento de la reinversión de beneficios extraordinarios y a la denominación de los grupos fiscales, antes denominados grupos de sociedades.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo 1.- Modificación de los artículos 21, 22 y 24 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo

Uno. Se modifica el artículo 21 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/997, de 20 de mayo, que tendrá la siguiente redacción y denominación:

"Artículo 21.- Reinversión de beneficios extraordinarios

Cuando proceda la aplicación de lo dispuesto en el artículo 22 de la Norma Foral del Impuesto, se tendrán en cuenta las siguientes reglas:

1. No se entenderán comprendidos entre los valores representativos de la participación en el capital o en los fondos propios de toda clase de entidades a los valores representativos de la participación en fondos de inversión ni aquellos otros que no otorguen una participación sobre el capital social.

2. A los efectos de calcular el tiempo de posesión de los valores representativos de la participación en el capital o en los fondos propios de toda clase de entidades se entenderá que los valores transmitidos han sido los más antiguos.

3. No formarán parte de las rentas objeto de no integración en la base imponible el importe de las provisiones relativas a los elementos patrimoniales o valores, en cuanto las dotaciones a las mismas hubieran sido fiscalmente deducibles, ni las cantidades aplicadas a la libertad o aceleración de la amortización que deban integrarse en la mencionada base imponible con ocasión de la transmisión de los elementos patrimoniales que disfrutaron de las mismas.

4. Cuando el importe reinvertido sea superior al total del importe obtenido en la transmisión, el exceso podrá, en su caso, acoger-

Foru Arauko VII. Tituluan zehaztutako inbertsioarengatikoen kenkarie-tara jaso ahalko da.

5. Finantza errentamenduko kontratuen helburu diren ondare ele-mentuak badira, berrinbertsioa kontratuaren datan egin dela joko da, ondare elementu bakoitzaren balioaren zenbateko berdinarekin. Berrinbertsioaren eraginak, ebazpen gisa, erosketa aukera gauza-tzeak baldintzatuko ditu."

Bi. Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 22. artikulua aldatu da, eta honela geratu da:

"22. artikulua.- Berrinbertsioaren helburu diren elementuak eskualdatzen direnean errentak zerga oinarrian integratzea

Berrinbertsioaren helburu diren ondare elementuak Zergaren Foru Arauko 22. artikuluko 3. idatz zatian zehaztutako epea amaitu baino lehen eskualdatzeak zehaztuko du, eskualdatzea gertatzen den zergaldiko zerga oinarrian, integratu gabeko errentaren zatia integratzea, betiere, lortutako zenbatekoa beste berrinbertsio baten helburu bada, 22. artikuluko horretako 1. idatz zatian zehaztutakoen arabera.

Hiru. Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 24. artikulua aldatu da, eta honela geratu da:

"24. artikulua.- Aparteko mozkinen berrinbertsioetako izapide betebeharrak

1. Zergadunek honakoak jaso beharko dituzte urteko kontuen oroit idazkian:

a) Zergari buruzko Foru Arauko 22. artikuluan adierazitako erre-gimenera jasotako errentaren zenbatekoa.

b) Zerga oinarrian integratu gabeko errentak sortu ziren zergal-dia.

c) Ondare elementuen deskribapena eta berrinbertsioa gauza-tzen zergaldiak.

2. Zergaren Foru Arauko 22. artikuluko 3. idatz zatian adierazi-tako epean egin beharko dira aipamen horiek."

2. artikulua.- Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onar-tutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko XII. Kapituluaren izenburua aldatzea.

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko XII. Kapituluaren izenburua aldatu da, eta honela geratu da:

"XII. Kapituluak. Gardentasun fiskala eta zerga taldeak"

3. artikulua.- Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onar-tutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 43. artikulua aldatzea.

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko 43. artikulua aldatu da, eta honela geratu da:

"43. artikulua.- Zerga taldeen erregimen berezia aplikatzea

1. Zerga taldeen erregimenaren aukeraz baliatzea Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio.

Jakinarazpenak honako datuak izan beharko ditu:

a) Zerga taldea osatzen duten sozietateen identifikazioa.

b) Zerga taldeen erregimena aukeratzeko taldeko sozietateek egindako hitzarmenaren kopia.

c) Sozietate nagusiaren zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza-ren ehunekoaren eta zerga taldea osatzen duten gainerako sozietate-teen artekoaren erlazioa eta bakoitzaren partaidetzak eskuratzea-ren datak.

Zergaren Foru Arauko 74. artikuluan zehaztutako baldintza guz-tiak betetzen direla adierazi beharko du sozietate nagusiak.

2. Zerga Administrazioak emandako zerga taldearen zenbakia adieraziko dio sozietate nagusiari.

Zerga taldean sozietate berriak sartzen badira edota sozietate-ren batek talde hori uzten badu, sozietate nagusiak jakinarazi egin beharko dio Zerga Administrazioari, aurreko idatz zatian xedatuta-koarekin bat.

se a las deducciones por inversión contempladas en el Título VII de la Norma Foral del Impuesto.

5. Tratándose de elementos patrimoniales que sean objeto de contratos de arrendamiento financiero, se considerará realizada la reinversión en la fecha de celebración del contrato, por un importe igual al valor de contado del elemento patrimonial. Los efectos de la reinversión estarán condicionados, con carácter resolutorio, al ejercicio de la opción de compra."

Dos. Se modifica el artículo 22 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, que quedará redactado como sigue:

"Artículo 22.- Integración en la base imponible de las rentas en el supuesto de transmisión de los elementos objeto de la reinversión

La transmisión de los elementos patrimoniales objeto de la reinversión antes de la finalización del plazo a que se refiere el apartado 3 del artículo 22 de la Norma Foral del Impuesto determinará la integración, en la base imponible del período impositivo en que se produzca la transmisión, de la parte de renta no integrada, excepto si el importe obtenido es objeto de nueva reinversión en los términos establecidos en el apartado 1 del citado artículo 22."

Tres. Se modifica el artículo 24 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, que quedará redactado como sigue:

"Artículo 24.- Obligaciones formales en los supuestos de reinversión de beneficios extraordinarios

1. Los sujetos pasivos harán constar en la memoria de las cuentas anuales los siguientes datos:

a) Importe de la renta acogida al régimen previsto en el artículo 22 de la Norma Foral del Impuesto.

b) Período impositivo en que se generaron las rentas no integradas en la base imponible.

c) Descripción de los elementos patrimoniales y períodos impositivos en los que se materializó la reinversión.

2. Las citadas menciones deberán realizarse durante el plazo a que hace referencia el apartado 3 del artículo 22 de la Norma Foral del Impuesto."

Artículo 2.- Modificación del título del Capítulo XII del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo

Se modifica el título del Capítulo XII del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, que pasará a tener la siguiente denominación:

"Capítulo XII. Transparencia fiscal y grupos fiscales"

Artículo 3.- Modificación del artículo 43 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo

Se modifica el artículo 43 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, que pasará a tener la siguiente redacción:

"Artículo 43.- Aplicación del régimen especial de los grupos fiscales

1. El ejercicio de la opción por el régimen de los grupos fiscales se comunicará a la Administración tributaria.

La comunicación contendrá los siguientes datos:

a) Identificación de las sociedades que integran el grupo fiscal.

b) Copia de los acuerdos por los que las sociedades del grupo han optado por el régimen de los grupos fiscales.

c) Relación del porcentaje de participación directo o indirecto mantenido por la sociedad dominante respecto de todas y cada una de las sociedades que integran el grupo fiscal y fecha de adquisición de las respectivas participaciones.

La sociedad dominante manifestará que se cumplen todos los requisitos establecidos en el artículo 74 de la Norma Foral del Impuesto.

2. La Administración tributaria comunicará a la sociedad dominante el número de grupo fiscal otorgado.

En caso de incorporación de nuevas sociedades al grupo fiscal o pérdida de la condición de perteneciente al mismo, la sociedad dominante lo comunicará a la Administración tributaria de acuerdo con lo previsto en el apartado anterior.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Araudiko VII. Kapitulua indargabetu da, bai eta 25. artikularekin, eta IX. Kapituluko 38. artikulua ere.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean. Hala ere, 1. artikuluan xedatutakoa 2002ko urtarrilaren 1ean hasiko da eragina izaten.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 16a.- Diputatu nagusia, RAMON RABANERA RIVACOB.A.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

4.562

566/2002 ERABAKIA, uztailaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bitartez, behin betiko onartu da "A-3002 Uribarri-Ganboako zeharbidea egokitu eta hobetzeko eraikuntza proiektua"; behin-behineko, proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta indibidualizatua; eta jendaurrean jartzea.

Plangintza, Proiektu eta Obra Zerbitzuko buruak Herrilan eta Hirigintza Sailera bidali zuen "A-3002 Uribarri-Ganboako zeharbidea egokitu eta hobetzeko eraikuntza proiektua", kontratuarentzat 736.042,16 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin.

Proiektu horretan errepidea Uribarri-Ganboako tartean egokitzeaz gain, zeharbidea urbanizatzea ere jasotzen da; beraz, lanen finantzaketan Herrilan eta Hirigintza Sailak eta Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Sailak esku hartu behar dute.

Herrilan zuzendariak onespena eman dio proposamenari.

Diputatuen Kontseiluari dagokio desjabetzaren ondorioetarako herri onurako aitortpena daramaten proiektuak onestea, Arabako Foru Aldundiaren Antolakuntza, Funtzionamendua eta Lege Jaurbidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Ondorioz, 1985eko apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4-d artikulua, 1986ko Testu Bateginaren 93. eta 94. artikulua eta Derrigorrezko Desjabetzaren Legearen 10. artikulua ikusita, Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko egunean eginiko bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea "A-3002 Uribarri-Ganboako zeharbidea egokitu eta hobetzeko eraikuntza proiektua".

Bigarrena.- Proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen eta horien jabeen banakako zerrenda zehatzari hasierako onespena ematea (I eranskina), jendaurrean jartzeko izapidea onartzea eta Lege eta Administrazio Zerbitzuari egindako guztia, baita desjabetze planoak ere, bidaltzea, desjabetze espedientearen izapideekin jarrai dezan.

Hirugarrena.- Ingurumen Zerbitzuari ebazpen hau bidaltzea, jakinaraziz Proiektuaren edukia Plangintza, Proiektu eta Obra Zerbitzuan azter dezaketela eta honek bere intereseko agiri guztien kopia esku-ragarri jarriko dizkiela, Arabako Lurralde Historikoaren Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Laugarrena.- Arrazua-Ubarrundiako Udalarri proiektuaren agiriak bidaltzea, Arabako Lurralde Historikoaren Errepideen ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 9a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOB.A.- Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se deroga el Capítulo VII, con su artículo 25 y el artículo 38 del Capítulo IX del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por el Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava. No obstante, lo dispuesto en el artículo 1 producirá efectos a partir del 1 de enero de 2002.

Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2002.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOB.A.- El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Acuerdos del Consejo de Diputados

4.562

ACUERDO 566/2002, del Consejo de Diputados de 9 de julio, que aprueba definitivamente el "Proyecto de construcción de acondicionamiento y mejora de la travesía de Ullibarri-Gamboa en la carretera A-3002", inicialmente la relación concreta e individualizada de bienes y derechos afectados y su sometimiento al trámite de información pública.

El Jefe del Servicio de Planificación, Proyectos y Obras presenta en el Departamento de Obras Públicas y Urbanismo el "Proyecto de construcción de acondicionamiento y mejora de la travesía de Ullibarri-Gamboa en la carretera A-3002", con un Presupuesto Global Contractual de 736.042,16 € (I.V.A. incluido).

El citado proyecto contempla además de las obras de acondicionamiento de la carretera a su paso por la localidad de Ullibarri-Gamboa, las correspondientes a la urbanización de la travesía, por lo que en la financiación de las obras deberán intervenir tanto el Departamento de Obras Públicas y Urbanismo como el de Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal.

Vista la conformidad del Director de Obras Públicas a la propuesta.

Teniendo en cuenta que el artículo 8.26) de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava atribuye al Consejo de Diputados la aprobación de los proyectos que llevan aparejados la declaración de utilidad pública a efectos expropiatorios.

En su virtud, vistos los artículos 4-d de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local de 2 de abril de 1985, 93 y 94 del Texto Refundido de 1986 y 10 de la Ley de Expropiación Forzosa, a propuesta del Diputado de Obras Públicas y Urbanismo, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar definitivamente el "Proyecto de construcción de acondicionamiento y mejora de la travesía de Ullibarri-Gamboa en la carretera A-3002".

Segundo.- Aprobar inicialmente la relación concreta e individualizada de bienes y derechos afectados por el Proyecto (Anexo I), así como su sometimiento al trámite de información pública y remitir lo actuado hasta este momento, incluidos los planos expropiatorios, al Servicio Jurídico-Administrativo para que continúe con la tramitación del correspondiente expediente expropiatorio.

Tercero.- Notificar la presente resolución al Servicio de Medio Ambiente a los efectos de lo dispuesto en el artículo 27 de la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava, indicando que podrán examinar el contenido del Proyecto en el Servicio de Planificación, Proyectos y Obras, el cual les facilitará copia de cuantos documentos sean de su interés.

Cuarto.- Remitir al Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia la documentación correspondiente al Proyecto de referencia en cumplimiento de lo dispuesto en artículo 28 de la Norma Foral 20/1990, de 25 de junio, de Carreteras del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de julio de 2002.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOB.A.- El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.